

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutumak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Berrikeriak

Jose Luis Alvarez Enparantza,
Txillardegi • AMASA

Aurreko batean, neure sinaduraz izenpeturik, nik sekula idatzi ez dudana «Lizarragarazi edo hil» topatu nuen EGUNKARIAN.

Nik, noski, «Lizarra-Garazi ala hil» idatzi nuen. Baina, argitaratuta, edo ikusi dute irakurleek.

Badirudi, Batuaeren aitzekian, «goiko» norbaitzuk *ala/edo* berezketa «gaindiztea» erabaki dutela.

Orain dela oso gutxi erreparatu dut olatu berriaren bultzada.

EGUNKARIA honetantxe (2001-XI-27) «Euskara Batua edo Euskalkien» artean hautatu beharra aipatu da. Eta handik 4 egunetara beste hau: «Hil edo bizikoa da

euskal kulturaren inguruko erakundeak indartzea».

Lehen «Euskadi ala hil» oihukatzen genuen. Moda berriaren arabera «Euskadi edo hil» esan beharko bide dugu...

Orain dela urte batzuk $2+3=5$ ekua-zioa, «bost gehi hiru edo bost» irakurtzea erabaki zen. *Edo* berdintasuna adierazteko erabiltzen baitzen. Eta *ala*, berriz, hautuaren larria eta desberdintasunaren sakona adierazteko.

Leizarragak berak, XVI. mendeko bere *Testamentu* famatuan, honela idatzi zuen: «Zein nahi duzue larga diezazuedan? Barabas ala Kristo» (Math. XXVII-17).

Bide beretik markatzen zuen hautua Axularrek, Villasantek autore honen hiztegiari buruzko lanean ikus daitekeenez: «traba edo behaztopa-herri... gozorik

edo zaphorerik... hemen edo purgatorioan pagatu behar» (160); baina «zein un-tzi, kostan dagoena, ala itsasoan dabile-na?... zein ur, geldia ala basterra?» (43). Eta *ala*, «*conjunction disyuntiva*» irakurtzen dugu.

Ithurry-ren *Gramatika* famatuan (*Grammaire Basque*, 1895), hau irakur daiteke: «*ala*, *opposition ou choix*; *edo*, *ou*» (54, 55 orr.).

Bide beretik Lafittek bere *Gramatika*-n: «*edo*, *sert à marquer que la distinction qu'on peut établir n'a pas d'importance*» (175).

Ohar bera aurkitzen da Sota-Lafitte-Akesolo-ren *Diccionario de Autoridades* delakoan: «*Edo* es *conjunction de igualdad*» (1215). Baina «*ala*, *conjunction disyuntiva*» (177). Gauza bera idatzi zuen

Azkuek bere *Morfologia*-n (485,486). Gauza bera bere *Hiztegia*-n.

Zenbat aldiz bien nahasketa aurkitzen da, Azkuek berak gogorazi zuenez. Baina nahasketa hazkor horren gakoa ez da urrun: gaztelaniak ez du berezketa hori egiten.


«*O*, *conjunction disyuntiva que denota contraposición*» (*Dicc. Sopena*, tomo 4, p. 3000: ac. 1). Eta ondoko paragrafoan: «*También indica equivalencia*». Euskaraz desberdinak dira «aitak» eta «gurasoak». Frantsesez ere bai: «*Pères vs. parents*».

Baina espainieraz ez: «*Padres*» bietan. Hortaz, euskaraz ere ez, jatetxe famatu hartan bezala: «*Aiten etxea*».

Eta guk, noski, gauza bera: «Lizarragarazi edo hil». Txillardegi *dixit!* Bapo, mutilak!

montxo

GIZA ESKUBIDEAK 2001



galdeiozu...



PELLO ESNAL
Idazlea

Sari ugari irabazi dituzu bertsopaperak idatzita. Zergatik ez duzu bertsozik kantatzen oholza gainean?

Fermin Perurena (Iruñea)

Oholza gainean ere probatu dut neure burua; behin baino gehiagotan, ez pentsa. Eta ikasi ere bai zer baldintza bete behar diren plazan kantatzeko. Lau, batez ere: 1) bertsoak egiten jakin, 2) bat-batean egiten jakin, 3) plaza-gizona izan eta 4) kantatzen jakin (belarri ona eta ahots egokia izan). Lehenengoa, betetzen dut. Bigarrena, hor nonbait. Beste bietan, ordea, desastre xamarra naiz. Beraz, zerorrek atera kontuak, Fermin, zergatik ez dudana oholtzarik maite. Gainera, 9 puntuko bertso batean idatzi nuen: «Ordaintzen duenari/lotsa zor zaio».

Abenduaren 18tik aurrera **Mixel Berhokoirigoin • ELBko lehendakaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta



Aitziber Perez de Karkamo

Terrorismoaren definizioaz

Terrorismoaren entziklopedia osatzen ari dira herri boteretsuetako agintariak; *bortizkeria ez zilegiari* buruzko erabiltzailearen gida, alegia. Atal anitz bilduko ditu; munduan zehar terrorismoaren gaitza duten gunek identifikatzeko atlas; nazioarteko ordena oinarritzen den paradigma berrien esema; kontzeptuaren baitan sar daitezkeen talde edo pertsona disidente ororen zerrenda; kontzeptuaren identifikazioa ahalbidetuko duen definizio ulerterraza eta honi aurre egiteko definizioaren egileek proposaturiko neurriak. Zenbait zalantza sortu dizkit honek guztiak, baina, nire deiei muzin eginez, liburua plazaratuko duen argitaletxearen arduradunek ez dute nire kolaborazioaren eskaintza onartu, eta nire aportazioek ez dute kabidarik izanen definizio prozesuan. Tira, botako ditut, norbaitentzat baliagarriak izango direlakoan.

Ez dut zorrotzegia izan nahi, baina ondo azal-

du beharra dago zergatik ote den terrorismo batzuek herriaren izenean erabiltzen duten bortizkeria, eta beste batzuek praktikatzan dutenean, ordea, «*nazioarteko zuzenbideaz*» eta «*defentsa eskubideaz*» mintzatzen garen. Ez daukat oso argi ere zilegia ote den terrorismo-tzat jotzen denaren aurka aritzeko erabiltzen den bortizkeria motari terrorismo ez deitzea. Komeni da argitzea zeinek duen «*defentsa eskubidearen*» jabego morala, hots, zeinek defenda dezakeen bere burua zilegitasunez, bortxa bidez bada ere, eta zeinek gainditzen duen moralaren muga, bere defentsa terrorismo bilakatuz. Azkenik, matematika atala ere jaso zezakeen, gaizki ulertuak egon ez daitezken, biolentziak eragindako biktima bakoitzaren balioa zehaztuz, bistan baitago denek ez dutela berdin balio. Bide batez, argibide bat eskatu nahi nuke, ea ez ote den nire izena ere zerrenda horretan agertuko, horrelako zutabeen idaztea dela eta.